

## Nerabezaroaren malkoak

Gogoratzen ditut egun haiek, nire gurasoekin piknik batera joaten ginenean, beti irribarre bat nuen aurpegian, asko maite nituen nire gurasoak. Ez nituen lagun asko, baina nituenak izan nituzkeen onenak ziren. Orain ordea... dena aldatu da.

—Esan dizut ezetz! Madarikatua! Zoaz pikutara beingoz! —oihukatu zuen nire amak.

—Zergatik utzi behar dizut ba etxe hau, e? Nik zu baino gehiago ordaindu dut etxe honen hipoteka! —buelatu zion aitak.

—Nola? Ni naiz etxe honetara dirua ekartzen duena zu pikutara bidali zintuztenean, gainera etxean alfer huts bat zara, ez duzu ezertarako balio!

—Ez dut inola ere sinatuko dibortzioaren papera! Ez nago ados! —hori esan eta kotxean sartu zen, atea danbateko batean itxiz. Eta honela, ziztu bizian joan ginen aitaren apartamentura.

Beti berdina gertatzen zen, hau errutina batean bihurtu da azken hilabete honetan: aita ni jasotzera etortzen zen, eta beti hasten ziren liskarrak nire amarekin, txorakeri bat edo dibortzioa dela eta, ni beti nengoen kotxean eserita aitaren zain, dena entzuten. Nola ez entzun ba? Beti garrasika, bizilagunak ere beraien leihotik nire gurasoak sortutako drama ikusten egoten ziren. Nazkatuta nago, ez dituzte inoiz nire sentimenduak kontuan hartzen... Gorroto ditut. Etxetik joango naiz. Ezin dut gehiago jasan.

Gaua etorri zen, eta nire aita lo seko zegoen, mozkortzea gustatzen baitzaio arazoak ahazteko. Tontolapikoa, egia izango al da mozkortzeak arazoak ahazten laguntzen dizula? Ba niri ondo etorriko litzaidake trago bat. Nire mugikorra eta nire aitaren diruzorrotik billete batzuk hartu eta leihotik salto egin nuen aurrean nuen edukiontzi batean geratuz. Nire lagunaren etxean antolatu duten *party* batera joango naiz, mozkortzeko prest. Hamasei urte bakarrik ditut, baina nori axola zaio? Nire gurasoei behintzat ez.

Bai atea, bai txirrina jo nuen. Barruko musika topean zegoen, beheko kaletik entzun nezakeen. Azkenean ireki zuten atea, jendez gainezka zegoen eta kostatuko zitzaidan nire lagun mina aurkitzea. Sukaldean aurkitu nuen niretzako ezezagun bat zenarekin.

—Dafne? Zergatik zaude hemen? —esan zuen harrituta.

—Ze ba? Ezin al naiz etorri?

—Noski baietz, baina harritu nauzu. Ez zarelako inoiz festa hauetara etortzen.

—Txo! Utz gaitzazu bakarka momentu batez, eskerrik asko —esan nion sukaldean zegoen mutikoari eta horrekin, presaka joan zen.

—Zer gertatzen da, Dafne? —galdetu zidan, dituen begi gris horiekin adi-adi niri begira.

—Istorio luzea da Mark —isiltasun deseroso bat sortu zen—. Aizu, gogoratzen al duzu behin batean esan zenidanean edozer egiteko prest zeundela niri laguntzeko?.

—Bai, ze ba?

- Joan zaitetz logela bat prestatzen, laster beharko dut eta.
- Baina kontatuko al didazu zer gertatu den?
- Kontatuko dizut, baina orain ez. Orain ondo pasatzeko denbora da! Goazemak lagun!
- Goazen ba!

Kurtainetik sartzen zen eguzki argiak esnatu ninduen. Ugh, zer da buruko min hau? Buruak bueltak ematen ditu, botaka egiteko gogoa daukat, non nago? Hau ez da nire logela... Atzo... zer egin nuen? *“Lagunok! Aupa gaua! Ondo pasa, ahaztu dena!” ni mahai baten gainean nengoen, plastikozko edalontzi gorri bat nuen esku artean, trago bat hartu eta gero beste bat, eta beste bat, eta beste bat...* ez dakit zenbat edan dudan. Vodka kas limoiarekin zela uste dut, gaizki gogoratzen ez badut.

Burusiaren azpian begiratu nuen, eta... non arraio zegoen nire arropa?! Nire azpiko arropetan nengoen soilik. Oker ez banago, Marken logelan nago... Atea ireki zen eta horrek nire pentsamenduak moztu zituen.

—Azkenean esnatu zara, loti eder maitea —esan zuen bere ilea toalla batekin lehortzen.

—Azalduko al didazu zer gertatu zen atzo gauean? Eta zergatik nagoen nire azpiko arropetan bakarrik? —galdetu nion neure burua burusiarekin burritu batean bihurtuz—.

—Ez al zara gogoratzen ezertaz? —buruarekin ezetz egin nion—. Ezta denen aurrean *striptease* bat egin zenuela ere?

Hori esan eta ni gorri-gorri jarri nintzen. Zer esaten ari da? Ni? *Striptease* bat egin nuela denen aurrean?! Morroi halakoa, niri ziria sartu nahian!

—Zer esaten ari zara? Niri ez didazu ziria sartuko, ez nintzen atzo jαιο —buelatu nion.

—Jajajaja, neskato argia. Atzo botaka egin zenuen, beraz zure arropa kendu behar izan nizun, orain lehortzen dago. Nire arropa utziko dizut bitartean —. Bere armairura joan eta elastiko beltz bat eta kiroletako praka batzuk atera zituen.

—Aah, eskerrik asko. Orduan... nire azpiko arropetan ikusi nauzu?

—Ba bai, zer ba? Konfiantza dugu gure artean. Nahi baduzu zuk ere nire azpiko arropetan ikus nazakezu.

Bere eskaintzari uko egin eta logelatik joan zen Mark. Mugikorra hartu nuen ordua begiratzeko eta hamarrak zirela jartzen zuen. Hamabost dei galdu nituen nire amarenak eta bost nire aitarenak. Ahaztu egin zitzaidan gaur goizean amaren etxera joan behar nintzela eta aitak eraman behar ninduela. Ai ama... ze saltsatan sartu naizen oraingoan... Salto batez ohetik atera eta Markek utzi zidan arropa jantziz eskailerak jaitsi nituen, bidean pare bat aldiz behaztopatuz. Etxetik atera nintzen Mark atzetik galdezka nuelarik, gorrarena egin nuen, ez nuelako bere galderei erantzuteko denborarik. Markek ezkutatuta zeukan bizikleta hartu eta amaren etxerantz abiatu nintzen. Hogei minutu inguru behar izan nituen iristeko. Urrutitik ikusi nuen ama atean zain, eta nire aita ere berarekin zegoen. Dirudienez beti bezala gaude, ama sua dariola burutik baina aita berriz errudun

sentitzen zela zirudien oraingoan. Hasperen egin eta hurbildu nintzen sermoi bat jasateko prest. Edo ez?

—Dafne, non demontre zeunden? Milaka aldiz deitu zaitugu, eta zu non? Ez al dakizu ba zein kezkatuta geunden? Etorri hona oraintxe bertan! —esan zuen oihuka.

—Ni... lagun batzuekin nengoen.

—Tuntuna naizela uste al duzu? Alkoholaren kiratsa eta gizonen kolonia duzu soinean. Parrandan ibili zara ezta? Zer egin dut nik aurreko bizitzan gauza hauek niri gertatzeko? Lehendabizi zure aita eta orain zu. Nazkatuta nago! Sartu oraintxe bertan eta ez atera etxetik nik esan arte! Hilabete osoa egongo zara zigortuta, neskato lotsagabea.

—Ama! Ez da hainbesterako! Pixkat berandu egin zait lagunen etxean, gainera nik ez daukat aita horrelakoa izatearen errurik —bota nuen etxean sartzen—. Eta ez pentsatu hemen geratuko naizenik, ezta pentsatu ere! Ni ere nazkatuta nago! Zer egin dut nik nire aurreko bizitzan zuek bezalako gurasoak izateko, eh? Gorroto zaituztet! —hori esan eta etxera sartu nintzen atea danbateko batez itxiz.

Gau osoa negarrez pasatu nuen. Nik dena ondo egotea nahi nuen baina ezinezkoa zen ez bagenion ondo hitz egiten elkarri. Ezin dut gehiago jasan, ezin nintzen hemen gehiago geratu. Marken apartamentuan geratuko nintzen bolada batez. Mahai gainean ohar bat utzi nien, hilabete oso batean ez nindutela ikusiko esanez. Maletak egiten hasi nintzen bihar goizean goiz hemendik alde egiteko.

Aste bat igaro zen eta ni goxo-goxo, Marken apartamentuan, berarekin... dena bikain zihoan, baina banekien gauza onak ez zutela asko iraungo, eta hau ez zen salbuespen. Pelikula bat ikusten ari ginen Marken logelako ordenagailuan, palomita batzuk jaten. Pelikulako mutilak bere neskalagunari tutik esan gabe hiritik alde egin zuen, gutun bat bakarrik utziz sukaldeko mahai gainean. Horrela bukatu zen pelikula. Mark eta ni elkarri begiratu genion.

—Zerbait esan behar dizut —esan zidan eztiro. Ehiztari batek bere helburua liluratzeko erabiltzen zuen moduko tonua zen, ez diola minik egingo pentsarazteko tonua.

—Esan ba.

—Kanadara joango naiz —hau esan eta ordenagailuko pantailara zuzendu zuen begirada. Isiltasun deseroso bat sortu zen, pelikula amaierako musika salbuetsita, musika melodiko eta tristea.

—Zer? Noiz? —esan nuen harri eta zur.

—Etzi arratsaldean dut hegaldia.

—Zure gurasoak eskatu al dizute? Hor biziko al zara betirako? —ezin nuen sinetsi. Nire lagunik on onena Kanadara joango zen bizitzera, ni hemen bakarrik botata utzita. Ni konturatu gabe malko bat erori zen nire eskuetara.

—Bai z- —ez nion bukatzen utzi.

—Ezin nauzu horrela utzi Mark! Ezin dut ezta imajinatu ere egin zu nire ondoan ez egotea, ni—oraingoan Markek moztu ninduen.

—Ei ei ei, hitz egiten bukatzen utzi neska! “Bai zera” zen nire erantzuna, pairugabea zara gero!  
—pare bat karkara bota zituen—. Gogoratzen al zara nola duela bi hilabete edo ikastaro batean izena eman nuela? Ba onartu egin naute eta bi asterako joango naiz.

—Aaahhh... jajaja ba ahaztuta nuen. Barka. Gaur sentibera nago.

—Aizu, —hasi zen poliki—. orain esango dizudanarekin ez dut esan nahi nire apartamentutik bota nahi zaitudanik, ongietorria izango zara beti, eta hemen gera zaitezke ni ez nagoen bitartean. Baina joan zure gurasoengana eta bota iezaiezu pentsatzen duzun guztia. 16 urte dituzu, jende guztia pasa da bizitzako aldi horretatik, eta hobe da arazoei aurre egiten badiezu, hobeto sentituko zara. Nire bizipenetik kontatzen ari naiz, txikitatik ezagutzen dugu elkar, badakizu nolakoa nintzen nik zure urteak nituenean.

—Ba bai alajaina! Mutiko bihurri eta zakarra zinen gero!

—Zer diozu baina! Mutiko xarmagarria nintzen ni!

—Bale bale, zuk esaten duzuna, Mr. Xarmagarri.

Mark agurtu, buelta eman, eta bere apartamentuan sartu nintzen berriro. *Buzz... Buzz...* Nire mugikorra jotzen hasi zen ohe-mahaian. Pantailan begiratu eta “sorgina” irakurri nuen. Ama. Seguru aski etxera itzultzeko eta bere txapa emateko deitzen ari zitzaidan. Ez jakinarena egin nahi nuen, baina Marken hitzak gogoratu nituen. “... *joan zure gurasoekin hitz egitera, eta bota iezaiezu pentsatzen duzun guztia.*” Bueno ba deia hartu beharko dut, orain edo inoiz ez.

—Bai?

—Dafne... Maitea, zer moduz zaude? —ez zidan erantzuteko denborarik eman—. Bueltatu etxera, mesedez... ni-nik faltan botatzen zaitut, nire Dafne txikia.

—Ama... nik ere faltan botatzen zaitut, baina ez dut nahi, edo hobe esanda, ezin dut zuen liskarrak gehiago jasan, nazkatuta nago.

—Zure aitak eta nik hitz egin dugu, liskarrik gabe. Azkenean...—esan zuen ahotsa dardarka zeukalarik.

—Zer? Azkenean zer ama?

—Dibortzioaren paperak sinatuko ditu —erantzun zidan ahots pozkor batekin—. Zu joan zinenetik, azkenean hoberena dibortziaztea zela erabaki zuen.

\*\*\*

—Gero arte ama!— esan nuen atetik atera nintzenean.

Gauzak asko hobetu dira azken bi aste hauetan. Aita eta ama dibortziatuta daude, baina zer egingo diogu ba? Haiek ere bere bizitza dute azken finean. Horrela ere ez gaude hain gaizki, bueno, gutxienez lehen baino hobeto gaude. Eztabaida gehiagorik ez, asteburuetan aitaren apartamentuan, mozkortzeari uzten ari da... ah! Eta gaur Mark itzuliko da. Erradioan erreproduzitzen zegoen musikak galdera bat ekarri zidan burura.

—Aita —deitu nion.

—Mmm? Zer da maitea?—

—Zer gertatuko litzateke mutil-lagun bat banu?

Aitak autoa bat-batean gelditu zuen. Uff, eskerrik asko segurtasun-uhale jauna.

—Zer Esanduzu?! Mutil-lagun bat duzula?! Nor da mukitsu lotsagabe hori? Ni-...—.

—Aita! Mesedez, nik ez dizut hori esan, egoera hipotetiko bat zen. Ez dut mutil-lagunik, ez *novio*-rik ez *boyfriend*-rik... oraindik, baaaina, badaukat gustatzen zaidan mutil bat. Mark du izen, eta baaai, oraintxe bertan jasotzera goazena da. Oso jatorra da, ikusiko duzu.

*Nerabezaroaren malkoak, nerabzaroko ezinbesteko osagaia.*

**Yue Xin Fu**

